


Ekonomia zirkularra





Ekonomia zirkularra

Ekonomia zirkularrak nola ekoizten eta kontsumitzen dugun birpentsatzera gonbidatzen gaitu, hondakinak aukera bihurtuz eta gure baliabideen erabilera eraginkorragoa sustatuz etorkizun oparoagoa eta orekatuagoa eraikitzeko, jasangarritasuna, eraginkortasuna eta ekitatea bultzatuz gure sistema ekonomikoan.

Definizioa

Jasangarritasun-maila handiena lortzeko, baliabideak efizientziaz erabiltzen dituen ekonomia da. Produktu eta zerbitzuen balio-bizitza luzatzea eta «gutxiagorekin gehiago» lortzea du helburu. Material eta produktuen ekodiseinua, hondakin-sorkuntzaren prebentzio eta minimizazioa, berrerabilera, birmanufaktura, konponketa eta birziklapenaren bitartez lor genezake.




Euskadiko Ekonomia zirkularraren adierazleak:

1. Funtsezko adierazleak

1) Lehengaietarako autosufizientzia-maila: inportazioen mendekoak ez diren ekonomiako produkzio-prozesuetan erabiltzen diren lehengaien bolumena (ehunekoa) zein den erakusten du.

2) Erosketa publiko berdea: agintaritza publikoek eta erdi publikoek sektore berezietan produktuak, zerbitzuak, obrak eta kontratuak eskuratzea erabakitzen duten prozesua da, zeintzuen bizi zikloko ingurumen inpaktua bestelako sektore berezietako produktuekin, zerbitzuekin, obrekin eta kontratuekin alderatuz txikiagoa den eta oinarrizko erabilera berdina duten.



Euskadiko Ekonomia zirkularren adierazleak:


1. Funtsezko adierazleak

3) Hondakinen sorkuntza:

a. Udal-hondakinen sorrera biztanleko: biztanle bakoitzeko sortutako udal-hondakinen kopurua.

b. Barne Produktu Gordinaren (BPG) unitate bakoitzeko hondakinen sorrera, meatzaritzako hondakin nagusiak kanpo utzita: herrialde batean sortutako hondakinen guztizkoa da, meatzaritzako hondakin nagusiak kanpo utzita, BPGaren unitate bakoitzeko eta milaka eurotan neurtuta.

c. Materialen Etxeko Kontsumoaren (MEK) unitate bakoitzeko hondakinen sorrera, meatzaritzako hondakin nagusiak alde batera utzita: herrialde batean sortutako hondakinen guztizkoa da, meatzaritzako hondakin nagusiak kanpo utzita, MEKaren unitate bakoitzeko.



Euskadiko Ekonomia zirkularraren adierazleak:


1. Funtsezko adierazleak

4) Elikagai hondakinak: elikagaien produkzioan, banaketan eta kontsumoan urte bakoitzean zenbat hondakin sortzen diren erakusten du.

5) Birziklatze-tasak:

a. Udal-hondakinen birziklatze-tasa: udalek sortutako hondakin guztietan udal-hondakin birziklatuek egiten duten proportzioa da.

b. Hondakin guztien birziklatze-tasa, meatze-hondakin nagusiak izan ezik: herrialde batean birziklatutako material guztia zati herrialde horretan sortutako hondakinak izango litzateke, meatzaritzako hondakin nagusiak kenduta.




Euskadiko Ekonomia zirkularraren adierazleak:

1. Funtsezko adierazleak

6) Fluxu espezifikoaren birziklatze-tasak

- a. Ontzien birziklatze-tasa, oro har: birziklatutako ontzihondakinen guztizkoa zati hondakin gisa sortutako ontzien guztizko kopurua.
- b. Plastikozko ontzien birziklatze-tasa: birziklatutako plastikozko ontzien hondakinen guztizkoa zati sortutako plastikozko ontzien hondakinen guztizko kopurua da.
- c. Zurezko ontzien birziklatze-tasa: birziklatutako zurezko ontzien hondakinen guztizkoaren eta sortutako zurezko ontzien hondakinen guztizkoaren arteko erlazioa da.



Euskadiko Ekonomia zirkularraren adierazleak:


1. Funtsezko adierazleak

6) Fluxu espezifikoen birziklatze-tasak

d. Aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinen (AEEH) birziklapen tasa: kalkulatu da honako eragiketa hau eginez: 2012/19/EB Zuzentarauan ezarritako 'bilketaren tasa' bider zuzentaru bereko 'berrerabilpenaren eta birziklapenaren tasa'.

e. Bio-hondakinen birziklapen tasa: zeharka, konpostatutako/digeritutako udal-hondakinen proportzio gisa neurtzen da, biztanleria osoarekiko.

f. Eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen berreskuratze-tasa: eraikuntzako eta eraispeneko hondakinetatik (EEH) materiala berrerabiltzeko, birziklatzeko edo berreskuratzeko prestatuta dagoen proportzioa, are betelanak barne hartuz ere, bildutako eta tratatutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak bereiz hartuta.




Euskadiko Ekonomia zirkularraren adierazleak:

1. Funtsezko adierazleak

7) Material birziklatuek lehengaien eskariari egiten dioten ekarpena:

a. Birziklatze-sarreraren tasa bizitza baliagarriaren amaieran: honako hau neurtzen du: produkzio-sisteman sartzen den material guztiaren zein zati datorren 'txatarra zaharra' birziklatzetik, hau da, bizitza erabilgarriaren amaieran dauden produktuen txatarra birziklatzetik.

b. Material zirkularraren erabilera-tasa: bigarren mailako lehengaien (U) proportzioa neurtzen du materialen guztizko kontsumoan (Materialen Barne Kontsumoa + U).




Euskadiko Ekonomia zirkularraren adierazleak:

1. Funtsezko adierazleak

8) Lehengai birziklagarrien merkataritza: lurralde bateko mugetatik bidaltzen diren hondakin eta azpiproduktu hautatuen bolumenak neurtzen ditu.

9) Inbertsio pribatuak, enplegua eta balio erantsi gordina: birziklapenaren, konponketaren eta berrerabilpenaren sektoreetako ondasun ukigarrietan egindako inbertsio gordina neurtzen du.

10) Birziklapenarekin eta bigarren mailako lehengaiekin lotutako patente kopurua: birziklatzearekin eta bigarren mailako lehengaiekin lotutako patenteen kopurua kontabilizatzen ditu, eta egindako eskaeren kopuruan oinarritzen da.



Euskadiko Ekonomia zirkularraren adierazleak:

2. Adierazle osagarriak

1. Materialen barne kontsumoa (MEK): eskualde bateko itxurazko kontsumoa jasotzen du. Honela kalkulatzen da: materialen sarreren eta irteeren arteko aldea (Zuzeneko Input Materialak (ZIM) eta esportazioen arteko aldea).

2. Produktibitate materiala (PM): BPG/MEK (materialen etxeko kontsumoa) ratioa da.

3. Material fluxuak biztanleko: ekonomia bateko materialen fluxu desberdinen bolumena erakusten du.

4. Hondakinen tratamendua biztanleko: lurralde batean biztanle bakoitzeko tratatutako hondakinen guztizko kopurua erakusten du eta haien banaketa, egindako tratamenduaren arabera da.

